


# "Erakusketa areto gehienetan interes komertziala da nagusi"

Hilaren 31ra bitartean Jose Ramon Unanue "Kaskas"-en pinturak ikus daitezke Kutxaren Bulebarreko erakusketa aretoan. Intxaurrondon bizi den 40 urteko margolariak lan abstraktuak aukeratu ditu erakusketarako. Dena den hau ez da Jose Ramon Unanuek bere ibilbidean landu duen estilo bakarra, paisaiak ere margotu baititu.



Raul Perez

Zein arlotan eman zenituen zure lehenengo urratsak arte munduan?

14 urterekin egurrean eta harrin taila egiten hasi nintzen, Aian dagoen tailerrean, hain zuzen. Ondoren taila utzi eta paisaiak margotzeari ekin nion. Irakasle ugari izan ditut, baina Navascues paisajista bikaina da eta bere ildo jarraitzeko gogoia sortu zitzaidan. Dena den, hainbat pertsonen laguntza izan dudan arren, autodidaktatzat dut nire burua. Denbora-

ren poderioz erakusketa-  
tan parte hartzen hasi nintzen. Besteak beste, nire lanak Musi-  
karte galeria ohian edota Segovian erakusteko aukera izan dut.

Zeintzuk dira zure artelanen ezau-  
garri nagusiak?

Hainbat estilo jorratu ditudan arren, nire lana abstraktua dela esango nuke, batez ere tamaina handiko lanak atsegin ditudalako. Horretarako lan abstraktuak aproposak dira oso. Margotzeko orduan koloreei berebiziko garrantzia ematen

diet. Lan gehienak oso koloretsuak dira. Horren arrazoia? Batek daki! Koloreak hautatzerakoan eta hauek erabiltzerakoan barruak agintzen didana egiten dut, besterik gabe. Gaiei dagokienez, organikoak diren ereduak margotzen ditut, zerua edota sustriak bezalako gauzak. Dena dela, artista guztiok aldaketen beharra somatzen dugu noizean behin, eta niri hori gertatzen zaidanean abstraktua utzi eta paisaietara jotzen dut berriro ere.

Gaur egungo zein euskal pintore gus-  
tatzen zaizkizu gehien?

Goenaga, Zumeta edota Gonzalo Chilla aipatuko nituzke. Dena den, atzerriko hainbat artista ere miresten ditut, Kandinsky esaterako.

Donostiako kultur etxeetan eta ta-  
bernetan erakusketak antolatu izan dituzu. Oraingoan, berriz, Kutxaren Bulebarreko aretoaren txanda da.

**DO NOSTIA  
PRIMERAKO  
HIRIA DA  
PI NTURA  
ISLADATZEKO**



# GOE NGA, ZUMETA ETA GO ZALO CHILLIDA ATSEGI BITUT

Jauzi handia al da artista batentzat?

Zalantzarik gabe. Kultur etxeetan erakusketak antolatzea ona da, baina bere alde txarra ere badauka. Jendea beste eginkizun batzuetara edo beste zaletasun batzuk asetzerara joaten da kultur etxeetara, eta bisitari gehienek ia nahi gabe topo egiten dute artistaren lanarekin: jendea ez doa espreski zure lanak ikustera eta epaitzera.

Donostian oso zaila da lanak erakusketara aretoetan plazaratzea. Itxaron

zerrenda amaigabeak daude eta horrez gain galeria gehienak komertzialak dira, salmentak nahi dituzte eta gure lana ezagutarazi nahi dugunok jai dugu.

Zenbat artelan ikusi ahal izango ditugu zure erakusketan?

Guztira 151, abstraktuak guztiak. Halere aretoan proiektzioak egin daitezke, eta aukera hori baliatu nahi dut ikusleek nire paisaiak ikus ditzaten. Dena den, hurrengo pausoa non eman behar dudan erabakia dut jada. Tolosako Aranburu jauregian erakusketa antolatzea da nire asmoa.

Donostia, pinturan isladatzeko hiri ona al da?

Primerakoa da. Koloreak jatorrizko ideia batekin lotu behar dituzu, eta horrekin abiapuntua lortuta duzu. Hortik aurrera artelanaren testuingurua lortu beharra dago, eta Donostian Kontxako badiatik hasita hamaika leku apropos ditugu. Nire kasuan, paisaiak margotzeko orduan, Uliatik Pasaiara dagoen ikuspegia aukeratuko nuke.



- APOKALIFIN KULTUR ELKARTEA • 9-10 zenbakia
- 450 pezeta

Kalean da Arrasateko "Putz" aldizkariaren udako alea. Beti bezala, aldizkaria testu eta irudi umoretsu eta ironikoez josita dator. Elkarrizketatuen artean La Polla taldeko Evaristo kantaria, Juan Luis Zabala idazle azkoitiarra eta Karmelo C. Iribarren poeta donostiarra daude. Horrez gain, Asier Serrano idazlearen bi narrazio labur eta Charles Bukowskiren "Joku zikin eta adoretzu hau" poema dakartza aldizkariak -euskaraz eta gaztelaniaz orain arte argitaragabea-.



## IRUTXULOK banatzaileak behar ditu

IRUTXULOOn banatzaileak behar ditugu, ostiraletan aldizkaria banatzeko. Prest zaudetenok honako telefono honetara deitu besterik ez duzue: **943458408**.